

ARTEA. Pinturaren historian eragin handienetakoa izan duten artistetako bat da Berpizkunde garaiko veneziarra

Argiaren eta kolorearen maisua

Tizianoren olio-lanik onenen erakusketa zabalduko dute, gaur, Londresen

Agentziak | LONDRES

Pinturaren historian izen handia da Tiziano —*Titian* anglosaxoiarrentzat—, Tiziano Vecellio Berpizkunde garaiko veneziar margolari handiari dagokiona. Hitz jokoa eginez, Tiziano argiaren eta kolorearen erabileran itzal handia izan duen —eta egun ere duen— artista dela adierazi dute, Tizianori eta gaurtik aurrera Londresko National Gallery aretoan ikusiko den erakusketa handiari buruz aritzean, kazetari batzuek. Hitz jokoa ez da akaso aberastasun handikoa izango, baina esaldiak ez dio gezurrik. Tizianok oso arrasto sakona utzi zuen, eta eragin handia izan du beti maila handiko eta mundu osoko artisten lanean.

Artistaren bilakabidea argituko duten 40 olio-lan esanguratsuk osatzen dute Tizianoren Londresko erakusketa, eta Erresuma Batuan Tizianoren lanekin egundo osatu den erakusketarik handiena izango da. Mundu osoko museo handietako lanak daude Londresen bildutakoen artean, museo horietatik oso nekez irten ohi direnak horietako batzuk. Erakusketak 250.000 bisitari izatea espero dute National Galleryko arduradunek, erakusketaren arduradunetako batek, Caroline Campbellek adierazi duenez. Gaurdanik maiatzaren 18a bitarte egongo da zabalik erakusketa Londresen, eta udan erakusketa Madrilgo Prado museora eramango dute. Ekainaren 9tik irailaren 1era bitarte izango ditu ateak zabalik Tizianoren erakusketak Espainiako hiriburuan.

Erretratuen arloan, *Flora* izenekoak da Tizianoren obrarik aipagarrienetako bat, sentsualitate handiko lana, *bella donna* deritzon generoaren gailur nagusietako bat.

Aristokraziako ordezkari goren, aita santu, printze eta errege ugari jo zuten Tizianoren-gana, artistak erretratua egin ziezaien, Tiziano jotzen baitzuten zeregin horretarako artistarik egokientzat. Soldadu baten ausardia, santu baten debozioa edo emakume baten sentsualitatea beste inork baino hobeto isla zezakeela irizten zioten hala erretratatuak nola adituek, bai Italian eta baita Italiatik kanpo ere.

Alfonso d'Este Ferrarako dukeak bere gazteluko Alabastroko Ganberarako Tizianori enkargatu zizkion obrak ere erakusketan egongo dira, denak elkartuta, azkeneko 400 urteetan inoiz ez bezala.

Tizianoren *Bako eta Ariadna*, *Venusen adorazioa* eta *Adriano* dira Londresko erakusketak bildutako beste obra ezagun batzuk, eta han dago Tizianoren maisu Giovanni Belliniren *Jainkoen oturuntza* ere, Washington National Galleryk utzitako obra.

Madrilgo Prado museoak ere bere funtsetako lan garrantzitsuak utzi dizkio National Galleryri erakusketarako, hala nola Felipe II.ari, artean Espainiako printze zela, egindako erretratu ezagunetako bat. Armadura jantzita, aski jarrera hantustean ageri da lan horretan Felipe II.a.

Ez dago argi Tiziano zer urtetan jaio zen. Batzuek 1485. urtea jotzen dute aukera onargarrientzat, baina zalantza handiak daude horren inguruan. Nahiz eta bere ibilbidean zehar aro bat baino gehiago bereizi ohi duten adituek, argia eta kolorea haren obraren funtsezko ezaugarriak izan ziren beti. Azkenaldiko lanetan, indar handiko pintzelkadak zituzten margolanak landu zituen, atmosfera berezien sortzaileak. Inpresionismo magikoa deitu izan diote adituek Tizianoren ibilbidearen amaierako aro horri.

Tarquino eta Lucrecia margo-lana da Tizianoren aldi horretako adibide bat, Londresko National Galleryko erakusketarako Cambridgeko Fitzwilliam Museumek utzia.

Ibilbide luze eta aberatsa

Tizianok ez zion pintatzeari utzi hil zen arte, eta hori asko esatea da, 93 bat urte bizi izan zela uste baita —1576an hil zen—. Artistaren ibilbide luzearen frogarria izango da erakusketa, David Jaffe Londresko National Galleryko arduradunak iragarri duenez.

«Inoizko artista ibilbiderik luzeenetako bat izan zen Tizianoren, eta ez zuen inoiz etsi, ez zuen inoiz ezer egindakotzat eta amaitutakotzat eman», adierazi du Jaffek. «Pintzel bat hartzen zuen bakoitzean, zerbait berria egiten ahalegintzen zen».

Tizianoren bestelako dohai-



EGUNKARIA
Tizianoren *Bako eta Ariadna* da erakusketako lanetako bat.



EGUNKARIA
Erretratu bikainak egin zituen Tizianok, Paulo III.ari egindakoa kasu.

DAVID JAFFE

National Galleryko arduraduna

«Tizianok ez zuen inoiz etsi, ez zuen inoiz ezer egindakotzat eta amaitutakotzat eman»

nik ere utziko du agerian erakusketak, Adrian Searle *The Guardian* egunkariko arte adituaren ustez. «Tizianoren trebetasuna eta egokitze gaitasunaz gain, besterik ere frogatzen du erakusketak: pinta zitekeenaren inguruan zuen ja-

ADRIAN SEARLE

Arte aditua

«Egokitze gaitasunaz gain, Tizianoren jakin-min amaigabea ere frogatzen du erakusketak»

kin-min amaigabea; urrunera heltzeko zuen gaitasuna; eta gaiak eta formak elkarri etenik gabe eragiten diotela pinturan».

Aurten Erresuma Batuan egingo diren erakusketen artean garrantzitsuenetakoa da *Tizian*.

Jorge Oteiza eskultoreak ahul jarraitzen du, eta ospitalean segituko du

Europa Press | DONOSTIA

Jorge Oteizak «bere ahuldadearen barruan egonkor» jarraitzen duela adierazi zuen atzo Gabriel Zubillaga Gipuzkoako Poliklinikako pneumonia saileko arduradunak. Oteiza «bere onera etortzen» ari dela jakinarazi zuen Zubillagak.

Eskultorearen adinak —94 urte ditu— eta ahuldadeak bultzaturik —elikagaiak hartzeko ezintasuna du eta bere oinarritzko beharrak ezin ditu egin—, ospitalean jarraitu beharko du «jarraipen eta zaintza egokiena eskaintzeko».

Jorge Oteiza urtarillaren 30ean ingresatu zuten Gipuzkoako Poliklinikan pneumoniak eragindako arnasketa arazoak zituelako. Lehenagotik ere, antibiotikoak hartzen eta etxean ere oxigenoarekin zegoen Oteiza. Otsailaren 14an haren osasunak behar akada izan zuen eta zaintza areagotu dute.

Txillidaren Tindayako obra bideragarria den edo ez aztertzen hasiko dira

Efe | PALMA

Kanariar uharteetako Palmako Gobernuak gaur sinatuko du Estudios Guadianarekin Eduardo Txillidaren Tindaya proiektua bideragarria den edo ez argituko duen azterketa egiteko akordioa. Estudios Guadiana enpresak harremanak zituena Txillidarekin.

Fuerteventurako Tindaya mendia barrutik hustu eta bere barrualdean kubo bat ezarri nahi zuen eskultoreak. Munduaren aurrean gizakia- ren txikitasuna agertu nahi zuen Txillidak obra eztabaidatu honekin.

Akordioa Tindaya mendiaren inguruan sinatuko dute, gaur, Kanariar uharteetako Palmako Gobernuako presidente Roman Rodriguezek eta artistaren seme Luisek.